

IL AZALPEN PROBA • <i>Jack Destripatzailearen arrastoa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Ikusirik ia koma egoerako mozkorraldia zeukala polizia agenteek ziega batean giltzapetu zuten alkoholaren eragina uxatuko zitzaion arte. Emagaldua, etzan bezain agudo, lo seko geratu zen hantxe bertan botata.

Bertako poliziaburua gaueko 22:00etan iritsi zen bertara bere lan-txanda betetzera eta ohartu zen lotan jarraitzen zuela. Baina goizaldeko 0:15ean esnatu egin zen eta galdetu zion poliziaburuari noiz utziko zion kalera ateratzen.

—Heure burua zaintzen ikasten dunanean.

—Hori oraintxe bertan egin dezaket.

Poliziaburuak 00:55ean utzi zuen aske Kate Eddowes eta kalera ateratzera zihoanean horrek zer ordu zen galdetu zion poliziari.

—Hiretzat nahiko berandu berriz mozkortzen hasteko! –erantzun zion zakarki.

Poliziak leihotik ikusi zuen aldentzen emakume hura gaueko ilunean. Leku hartatik Mitre Square plazatxoraino zortzi bat minutu baino ez daude oinez normal paseatzen joanez gero.